

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2022ko iraila

Aurkibidea

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa
2. Langabezia erregistratua
3. Industriaren prezioak
4. Kanpo merkataritza
5. PMI konposatua
6. Sentimendu ekonomikoa

Eranskina

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,7 handitu zen abuztuan.

Afiliazio berrien kopururik altuena ostalaritzak lortu du.

2. Langabezia erregistratuak %7,0 egin du behera aurreko urtearen aldean.

Jaitsiera bereziki handia izan zen gazteen artean.

3. Industriaren prezioak moteldu egin ziren uztailean.

IPRIaren urte arteko tasa ia bost puntu jaitsi zen, %23,3ra arte.

4. EAEko esportazioek 9.140 milioi euroko langa gainditu dute.

Prezioen igoerak azaltzen du urte arteko gehikuntzaren zati handi bat.

5. Euroguneko PMI konposatuak behera egin zuen berriro abuztuan.

Jardueraren beherakada bereziki handia izan zen Alemanian.

6. Europako sentimendu ekonomikoak okerrera egin zuen abuztuan.

Halere, enpleguari buruzko igurikimenek oso baikorrak izaten jarraitzen dute.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioa % 1,7 handitu zen abuztuan


Gizarte Segurantzako afiliazioak %1,7ko urte arteko hazkundera izan zuen abuztuan, uztailera datua baino hamarren bat txikiagoa. Beraz, EAEko ekonomiak enplegua erritmo garrantzitsuan sortzeko duen gaitasunari eusten dio. Aldakuntza tasa horrek adierazten du azken hamabi hilabeteetan 16.173 afiliazio gehiago lortu direla eta gaur egun 969.294 afiliatu daudela.

Sexuaren arabera, ez dago alde handirik bien hazkunde erritmoan. Izan ere, gizonak %1,6ko gehikuntza tasa lortu duten bitartean, emakumeena %1,8an kokatu da. Une honetan, afiliazio guztien %47,3 emakumeei dagokie, eta pixkanaka gizonetik dagoen diferentziala ixten ari da.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

ABUZTUKO AFILIAZIOA
%1,7




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




AFILIAZIOA INDUSTRIAN

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Jarduera sektoreen arabera, zerbitzuek izan dute hazkunde tasarik handiena (%2,0), eta ondoren eraikuntzak (%1,8). Industriak %0,9ko igoera izan du, aurreko hilabeteetako erregistroen antzekoa. Jarduera adarren arabera, afiliazio kopuruaren igoera oso garrantzitsua da ostalaritzan, 4.500 afiliazio berri baino gehiago-

rekin. Handitu diren beste adar batzuk jarduera profesionalak, hezkuntza, manufakturak eta administrazio publikoa dira. Aitzitik, merkataritzak, finantza jarduerak eta lehen mailako jarduerak behera egin dute, nahiz eta azken horiek murrizketa txikiak izan dituzten.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.

	2021eko abuztua	2022ko abuztua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	953.121	969.294	16.173
Industria manufakturagileak	169.691	171.388	1.697
Merkataritza	136.417	135.254	-1.163
Osasun arloko jarduera	113.447	113.895	449
Hezkuntza	66.894	68.771	1.877
Administrazio jarduerak	67.255	68.520	1.265
Ostalaritza	57.761	62.291	4.530
Lanbide jarduerak	57.328	59.332	2.004
Eraikuntza	56.897	57.920	1.024
Administrazio publikoa	48.753	50.415	1.661
Garraioa	42.909	43.832	923
Etxeko langileak	29.069	28.925	-145
Bestelako zerbitzuak	25.156	25.399	242
Informazioa eta komunikazioa	23.936	25.029	1.093
Finantza jarduerak	17.048	16.774	-274
Jarduera artistikoak	14.978	16.168	1.190
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.422	12.140	-283
Ur horniketa	6.807	6.744	-63
Higiezen jarduerak	4.163	4.298	135
Energia horniketak	1.567	1.562	-5
Erauzketa industriak	548	558	10
Lurraldez kanpoko erakundeak	75	80	5

Iturria: Gizarte Segurantza.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Langabezia erregistratuak %7,0 egin zuen behera aurreko urtearen aldean

2022ko abuztuan, Lanbiden erregistratutako langabezia aurreko urtean baino %7,0 txikiagoa izan zen. Urte arteko tasa hori uztalekoa baino apur bat biziagoa da, baina bilakaeraren profilaren arabera, langabeziaren murrizketa erritmoa moteltzen ari da, argi eta garbi. Izan ere, orain dela urtebete jaitsiera %17 izan zen eta gaur egungoa, berriz, %7,0 hori.

Murrizketa nabarmenagoa da gizonen taldean, %9,2koa izan baitzen, eta emakumeen artean, berriz, %5,2koa. Guztira, langabezia dauden pertsonen %58 emakumeak dira. Bestalde, langabeziaren beherakada biziagoa izaten ari da 25 urtetik beherakoen artean (%10,7). Azkenik, atzeritarren artean jaitsiera tasa txikiagoa da (%4,7).


LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA.


ABUZTUA

-%7,0




LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA. GAZTEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



Analisiak adierazten du langabeziaren murrizketa proportzionalki handiagoa izan zela lehen lana bilatzen zuten pertsonen artean. Kolektibo hori guztizkoaren %11,5 da orain. Aurretiko lan esperientziaren bat duten pertsonen artean, urte arteko jaitsiera %6,4 izan zen. Hemen alde handiak ikusten dira sektore nagusi bakoitzean.

LANGABEZIA. ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Zehazkiago adierazita, zerbitzuek langabeziaren murrizketa apal samarra izan zuten (%4,4), eta industriak (%12,7) zein eraikuntzak (%14,1) emaitza zabalagoak izan zituzten. Ostalaritzako langileen eskaria da alde hori azaltzen duen arrazoietako bat, langabezia dauden beste sektore batzuetako pertsonak erakarri baititu.

LANGABEAK

	2021eko abuztua	2022ko abuztua	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	122.260	113.758	-8.502
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	20.702	19.646	-1.056
Bizkaia	69.528	64.239	-5.289
Gipuzkoa	32.030	29.873	-2.157
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	52.934	48.060	-4.874
Emakumeak	69.326	65.698	-3.628
25 urtetik beherakoak	9.343	8.347	-996
25 urte baino gehiago dutenak	112.917	105.511	-7.506
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.488	2.211	-277
Industria	13.964	12.194	-1.770
Eraikuntza	8.209	7.053	-1.156
Zerbitzuak	82.854	79.201	-3.653
Lehenago lan egin dutenak	107.515	100.659	-6.856
Lehenago lan egin ez dutenak	14.745	13.099	-1.646
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	18.530	17.664	-866

Iturria: SEPE.

INDUSTRIAREN PREZIOAK


Industriaren prezioak moteldu egin ziren uztailean

IPRI. INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa

2022KO UZTAILA

%23,3



Eustatek argitaratutako informazioaren arabera, uztailean EAEko industriaren prezioak %2,7 jaitsi ziren aurreko hilaren aldean. 2010eko urri-tik gertatzen den lehen jaitsiera da hori. Horri esker, IPRIaren urte arteko aldakuntza tasa ia bost puntu apaldu da, eta orain %23,3an kokatu da, oraindik ere oso handia den balioa, baina joera aldaketa bat gertatu izan dela adierazten du.


Jakina denez, industriako prezioen garestitze prozesu horren zati handi bat ondasun energetikoek izan duten igoeraren ondorioz gertatu zen, ekainean urte arteko tasa %76,5era iritsi baitzen. Hala eta guztiz ere, uztailean energiak %7,3ko merkatzea izan zuen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko hazkundea %58,3raino murriztu da, azken bost hilabeteetako tasarik txikiena baita.

ENERGIA

Urte arteko aldakuntza tasa


2022KO UZTAILA

%58,3




EKIPAMENDUKO ONDASUNAK

Urte arteko aldakuntza tasa



BITARTEKO ONDASUNAK

Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren gainerako ondasunetan, aldakuntza tasak energiarenak baino txikiagoak izan dira, baina horiek ere esanguratsuak dira. Bitarteko ondasunen kasuan, azken bi hilabeteetako moderazioaren arabera, urte arteko hazkundea %19,0 izan da uztailen, eta ekipamenduko ondasunetan, berriz, %4,3.

Kontsumo ondasunetan portaera desberdina ikusten da ondasun iraunkorretan eta galkorretan. Lehenengoan, tasak ez dira %5etik gorakoak izan, eta uztailen %4,2ra jaitsi ziren; bigarrean, berriz, urte arteko aldakuntza bi digituetan dago oraindik (%11,2), eta puntu bat baino gutxiago apaldu da.


KONTSUMOKO ONDASUNAK

Urte arteko aldakuntza tasa




KONTSUMO IRAUNKORREKOAK

Urte arteko aldakuntza tasa



KONTSUMO IRAGANKORREKOAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

EAEko esportazioek 9.140 milioi euroko langa gainditu dute


ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Milioi euro

ESPORTAZIOAK. 2022ko

2. HIRUHILEKOA

9.140,1




Hiruhileko batean inoiz ez da esportatu aurtengo bigarren laurdenean baino gehiago, 9.140 milioi eurotik gora saldu baita, duela urtebete baino %43,0 gehiago, alegia. Are gehiago, 2021eko hiruhileko berean erregistratutako %42,2 aparta baino handiagoa da; izan ere, 2020aren erdialdean, pandemia betean, jaso ziren balio apalekin alderatzeko efektuaz baliatu zen estatistika orduan. Prezioen eta, bereziki, energiaren garestitzea funtsezkoa da gertatzen dena ulertzeko. Ukrainaren inbasioak eragindako krisiak erregaien eta

oinarrizko produktu askoren prezioak goratu ditu erosketa saskia garestituz, eta, aldi berean, enpresek prezio handiagoan merkaturatzen dituzte beren produktuak. Horixe baieztatzen du tonatan egindako esportazioen analisiak, non egiaztatzen den energiaren salmentak eurotan %136,1eko hazkundea izan zuela, eta tonatan, aldiz, gehikuntza hori %30,1era mugatu zela. Izan ere, epigrafe guztiak, metal arruntetara bideratutakoa izan ezik, askoz ere dinamikoago hazi ziren eurotan tonatan baino.


ESPORTAZIOAK GUZTIRA. EUROAK

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPORTAZIOAK GUZTIRA. TONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. 2022KO 2. HIRUHILEKOA

Herrialdea	%
Alemania	%15,6
Frantzia	%15,5
Erresuma Batua	%6,7
AEB	%6,7
Herbehereak	%5,6
Italia	%5,4
Belgika	%5,3
Portugal	%4,2
Txina	%2,2

Europar Batasunak EAEko enpresen bezero nagusia izaten jarraitu zuen, eta saldutako guztiaren %63,4 bereganatu zuen. Alemania eta Frantzia nabarmen dira gainerakoen gainetik, %15,5 inguruko merkatu kuota banarekin eta beraiekiko saldoan superabit handia dago.

Eurotan neurtutako inportazioen guztizkoa ere maximoetan kokatu zen eta 7.854 milioi eurotik gorakoa izan zen. Datu horrek %51,1eko hazkundera ekarri zuen aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Esportazioen osaeran ez bezala, inportazioetan produktu

ESPORTAZIOEN BANAKETA. 2022KO 2. HIRUHILEKOA

Arantzel taldea	%
Ekipamendu ondasunak	%41,2
Garraio materiala	%23,8
Makinak eta aparatuak	%17,3
Ohiko metalak eta manuf.	%25,8
Produktu mine.eta energetikoak	%8,0
Plastikoa eta kautxua	%6,4
Nekazaritzako produktuak	%5,8
Produktu kimikoak	%3,6
Papera	%2,7

energetikoen erosketak bereganatu zuen lehen postua (erositako guztiaren %29,0 bildu zuen), 2.275 milioi eurotik gorako gastuarekin, lehen hiruhilekoan egindakoa baino 842 milioi gehiago. Horren ondorioz, energiaren saldoak 1.568 milioi euroko defizita izan zuen, aurrekaririk gabeko balioa, eta gero eta nabarmenagoa da Euskadik energia mendekotasun handia duela.

Azkenik, guztizko saldoak superabita izan zuen, 1.285 milioi eurotik gorakoa, eta zifra hori urrun dago Espainiak aldi horretan izan zuen 16.546 milioi euroko defizitetik.

INPORTAZIOAK GUZTIRA


Milioi euro



Iturria: Eustat

SALDOA GUZTIRA

Milioi euro



Euroguneko PMI konposatuak behera egin zuen berriro abuztuan


Abuztuan, euroaren eremuko PMI konposatuak beste murrizketa bat izan zuen eta 48,9 puntutan kokatu zen, jarduera pribatuaren uzurdura adierazten duena. Izan ere, enpleguak eta zerbitzuek jardura murriztu zuten hilabete horretan. Enpleguaren kasuan, ekoizpenaren indizeak, aurreko hilabetearen aldean ekoizpen mailari buruz egindako galderari erantzuten diotak, zertxobait egin zuen gora, baina igoera adierazten duten balioetatik urrun dago oraindik.

Bestalde, zerbitzuak 49,8 mailara jaitsi ziren, jardueraren uzurdura txiki bat adierazten duena. Eskariak behera egin du eta eskaera berri gutxiago jaso dituzte. Bestalde, enpleguak hazten jarraitu zuen, baina erritmo motelagoan, lan kargak behera egin duelako eta enpresek konfiantza galdu dutelako.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2022ko ABUZTUA


48,9




MANUFATUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Herrialdeka, Alemania izan da jaitsierarik handiena pairatu duena (46,9) eta azken hogeita zazpi hilabeteetako daturik txarrena jaso du. Industriaren garai txarrari zerbitzuen ahultasuna gehitu behar zaio orain. Frantziak antzeko bilakaera izan du, hamazazpi hilabeteetan daturik txarrena eskuratuta, baina oraindik hedapen eremuan dago (50,4).

Italia da Euroguneko herrialde handienetan indizea suspertu den bakarra, baina jardueraren murrizketa eremuan ere badago (49,6). Azkenik, Espainiak okerrera egin du 50,5 punturaino, kasu honetan ere ekonomiaren hedapen eremuaren barruan.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. ITALIA



PMI KONPOSATUA. ESPAINIA



Iturria: Markit




EKONOMIAREN SENTIMENDUA

Europako sentimendu ekonomikoak okerrera egin zuen abuztuan

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

2022KO ABUZTUA

97,6




Abuztuan, Euroguneko sentimendu ekonomikoaren indizeak okerrera egin zuen berriro, eta 97,6 puntutan kokatu zen, azken hogeita bi urteetako batez bestekoa baino pixka bat beherago. Beraz, aurreko hilabeteetan izandako beherakadari jarraipena ematen zaio. Abuztu-ko okertzearen ardatza ekonomiaren bi sektore nagusiak dira, industria eta zerbitzuak, nahiz eta bi kasuetan haien posizioa 2000. urteaz

geroztik erregistratutako batez bestekoaren gaineratik egon. Aitzitik, eraikuntzak, txikizkako merkataritzak eta kontsumitzailearen konfiantzak emaitza hobetu zuten uztailearekin alderatuta. Nabarmendu behar da enpleguari buruzko igurikimenek ere hobera egin zutela hilabete horretan, eta azken bi hamarkadetako batez bestekoaren oso gaineratik jarraitzen dutela. Azkenik, ziurgabetasuna zertxobait murriztu da.


SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROPAR BATASUNA

2022KO ABUZTUA

96,5




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Herrialdeen arabeko azterketan, Alemania bi puntu baino gehiago jaitsi da bere sentimendu ekonomikoan, 97,2 punturaino. Industriaren ikuspegiak okerrera egin du; izan ere, duela urtebete maila errekorra zuen, baina oraindik ere batez bestekoaren oso gaineretik dago. Frantziaren kasuan, okerragotzea txikiagoa da, eta orain 99,8 puntutan dago, batez bestekoa baino bi hamarren beherago bakarrik. Bertako industriak okerrera egin du, baina zerbitzuek eta eraikuntzak indartsu jarraitzen dute.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Italia (100,2) da lau herrialde nagusien artean batez besteko balioaren gaineretik dagoen bakarra, baina gainerakoekin bat dator ezkortasunerako joerarekin, bereziki familien artean. Espainia joera horretatik aldentzen da, eta abuztuan galdutako lurraren zati txiki bat berreskuratu zuen, 97,9 puntutan kokatzeraino, eraikuntzaren hobekuntzagatik eta kontsumitzaileen konfiantzagatik. Gainera, enpleguari buruzko igurikimenak hobeak dira orain ekainean eta uztailan baino.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europar Batzordea.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	II
BPG	-9,9	5,6	18,6	3,9	4,7	5,7	4,3
Barneko azken kontsumoa	-8,9	4,8	18,1	2,4	2,7	2,6	—
Familien kontsumoa	-12,4	5,3	22,6	2,1	3,0	3,1	—
Administrazioaren kontsumoa	3,8	3,0	5,2	3,5	1,7	0,6	—
Kapital eraketa gordina	-11,7	6,3	21,4	3,7	4,3	3,9	—
Barne eskaria	-9,6	5,1	18,9	2,7	3,1	2,9	—
Esportazioak	-16,1	11,8	30,1	12,5	11,1	13,6	—
Inportazioak	-15,4	10,8	29,8	10,2	8,1	8,9	—
Lehen arloa	-15,0	1,8	7,8	4,6	2,6	-1,8	—
Industria eta energia	-11,2	8,5	30,2	5,5	4,3	6,5	—
Eraikuntza	-8,2	2,4	11,5	1,3	0,5	1,9	—
Zerbitzuak	-9,0	5,0	15,5	4,0	5,4	6,0	—
Balio erantsi gordina	-9,5	5,6	18,4	4,2	4,8	5,8	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-13,6	5,3	20,4	1,9	3,7	3,9	—
Enplegua	-7,7	5,5	16,6	4,3	4,6	5,0	3,7

EKAINEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2022			2022
	II	III	IV	
BPG	4,5	4,1	4,0	4,5
Barneko azken kontsumoa	-1,6	2,5	3,2	1,6
Familien kontsumoa	-2,4	2,6	3,6	1,7
Administrazioaren kontsumoa	1,0	2,1	2,1	1,5
Kapital eraketa gordina	7,7	10,0	7,0	7,1
Barne eskariaren ekarpena	0,2	5,0	4,0	3,0
Kanpo eskariaren ekarpena	4,2	-0,9	0,1	1,5
Lehen arloa	-2,4	-1,3	4,2	-0,5
Industria	6,6	7,2	5,8	6,5
Eraikuntza	7,9	7,6	9,6	6,8
Zerbitzuak	4,8	3,2	4,0	4,5
Balio erantsi gordina	5,4	4,4	4,8	5,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-3,3	1,5	-2,7	-0,2
Lanaldi osoko lanpostuak	3,3	2,0	2,7	3,2
Landunak (BJA)	1,9	1,4	1,8	2,0

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
Laboral kutxa	6,3	—	Ceprede	3,7	3,2
Confebask	5,9	—	BBVA	3,3	2,6
Hispalink (BEGaren aldak.)	4,3	2,7			

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	II
BPG	-10,8	5,1	17,8	3,5	5,5	6,3	6,3
Kontsumo pribatua	-12,2	4,7	23,0	1,8	4,2	4,9	3,2
Kontsumo publikoa	3,3	3,1	4,1	3,5	0,4	-0,4	-1,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	-9,5	4,3	20,6	0,3	2,8	6,8	9,8
- Aktibo finko materialak	-10,5	4,1	23,4	-0,7	1,3	6,1	9,8
- Eraikuntzan	-9,6	-2,8	11,2	-5,5	-3,9	0,6	7,0
- Ekipamendu ondasunetan	-12,9	16,0	49,5	7,0	9,5	14,4	14,4
- Jabetza intelektualaren produktuak	-4,3	5,5	8,5	5,4	9,9	10,3	10,0
Nazio eskaria (ekarpena)	-8,6	4,7	17,7	2,4	3,8	4,0	3,6
Esportazioak	-20,1	14,7	40,4	16,1	17,9	18,1	18,5
Inportazioak	-15,2	13,9	40,6	13,2	13,1	11,7	10,4

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
AFI	4,3	3,0	Mapfre Economics	4,1	3,0
BBVA	4,1	1,8	Oxford Economics	4,5	2,0
CaixaBank	4,2	2,4	Repsol	3,7	2,3
Merkataritza ganbera	4,3	2,8	Santander	4,0	2,5
CEEM-URJC	3,9	2,0	Metyis	3,8	2,5
CEPREDE-UAM	4,9	2,6	Universidad Loyola Andalucía	4,1	2,6
CEOE	4,2	3,2	Batez bestekoa	4,2	2,5
Equipo Económico (Ee)	4,4	3,1	Gobernua (2022-04)	4,3	3,5
EthiFinance Ratings	4,3	2,9	Espainiako Bankua (2022-06)	4,1	2,8
FUNCAS	4,2	2,0	Europar Batzordea (2022-07)	4,0	2,1
ICAE-UCM	4,0	2,6	NDF (2022-04)	4,8	3,3
IEE	3,9	2,8	Consensus Forecast (2022-08)	4,3	2,3
Intermoney	3,9	2,4			

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Merkataritza ganbera, CEEM-URJC, Equipo Económico (Ee), EthiFinance Ratings, ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	II
AEB	-3,4	5,7	12,2	4,9	5,5	3,5	1,7
Txina	2,0	8,1	7,9	4,9	4,0	4,8	0,4
Japonia	-4,5	1,6	7,3	1,2	0,5	0,9	1,0
Kanada	-4,9	4,5	11,7	3,8	3,2	2,9	4,6
Europar Batasuna	-5,9	5,4	14,0	4,1	5,0	5,5	4,0
Eurogunea	-6,3	5,3	14,6	3,9	4,8	5,4	3,9
Alemania	-3,7	2,6	10,2	1,8	1,2	3,5	1,7
Frantzia	-7,8	6,8	18,6	3,6	5,0	4,7	4,2
Erresuma Batua	-9,3	7,4	24,5	6,9	6,6	8,7	2,9
Italia	-9,0	6,6	17,5	4,0	6,4	6,3	4,7
Herbehereak	-3,9	4,9	10,3	5,5	6,2	6,6	5,4

Iturria: Eurostat eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2022KO ABUZTUA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
AEB	1,7	0,7	8,1	3,8	3,7	4,2
Japonia	1,4	1,6	2,0	1,4	2,6	2,5
Kanada	3,5	1,5	7,0	3,5	5,3	5,6
Europar Batasuna	2,8	1,4	7,8	4,1	—	—
Eurogunea	2,8	0,9	7,8	4,1	6,8	6,9
Alemania	1,5	0,7	7,5	4,2	5,2	5,2
Frantzia	2,4	1,2	5,5	3,2	7,2	7,3
Erresuma Batua	3,4	0,1	9,1	6,7	3,9	4,4
Italia	3,0	1,1	7,0	3,1	8,5	8,4
Espainia	4,3	2,3	8,6	3,6	—	—
Herbehereak	2,9	0,6	8,9	4,0	—	—

Iturria: Consensus Forecast.